

Schmid

IPUÑAK



Manterola tar G.

XVII-556

5.50 821-34

SCH

lipu

IPUINTXOAK

830-34-916.9


XXIV-667

R. 9265

JAUNGOIKO-ZALE'REN IDAZTIAK

SCHMID

IPUINTXOAK



MANTEROLA'TAR G.



Bigafen irarkaldia



ZORNOTZA'N
JAUNGOIKO-ZALE'REN IRARKOLAN
1934

Nihil obstat
Victoriæ, die 27 Novembris anni 1934
Emmanuel de Lecuona
Censor

IMPRIMATUR
Victoriæ, die 27 Novembris 1934
† *Matthæus Episcopus*
Victoriensis


(L. S.)

OARA

Idaztitxo onen bigafen irarkaldian beste sei ipuin geitu dautsoguz: Euron egilea, enparauena lez, Schmid Kistobal, alemandar kanonigu ospetsua da. Bere idaztietatik laburpenak aukeratu ditugu, gastetxoentzat aukerakoak diranak. Kanonigu ospetsu au, 1788'n Dunkelsbuhl'en yayo ta 1854'n Augsburg'en il zan. Idazle yayo ta trebea izan zan, batez bere gasteentzat idatzi zituan idaztietan. Bere idazlanak Europa gustian ospetsuak dira.

Idaztitxo onen lenengo irarkaldia 1929'n argitaldu zan, eta euskalzaleen eskariari erantzunaz bañiro, zerbait geituta, argitaltzen dogu, uste izanik betargi ta espanetan ifibafeaz, mutikoen antzera, agertzen dan idaztitxo oneri, abegi ona egingo dautsela Agur.

M'tar G.



GALBURUAK

Seme txikiena
laguntzat ebala,
yoan zan lugin bat
gari solora,
yakiteko asmoz
bere sail edeñak
eldu ete ziran
igitarora.


—Ene aita, zelan
—mutikoak diño—
gari batzuk dagoz
lerden, zutunik;

beste asko bañiz
luñerantz etzunda,
lotsa bai'lirean
apal-apalik?

Zuzenbidez aita,
lerden dagozanok,
askozaz obeak
izango dira;
ainbesteraño ba
etziran yausiko
besteok, ederak
izan ba'lira.

—Ara, ene seme,
etzunda yagon au,
alorta ederez
beterik yagok,
lerden yagon ori,
año egon añen,
aletxo bat barik,
lasto utsa dok.

Eure gogoan ba,
yosi eik betiko
esango yoadan,
egi garbia:
«Ezyakiña aña
izaten dokan lez,
apal-apala dok
yakituria».



LILIA

KOLDOBIKE'k eta, lorategi bat eukien. Eta lorategian ezpel landaraz inguratuta, lili eder, mardula, lerden ta zuri-zuri agertzen zan.

Lili aren neurira eltzen ez zan neskatotxo, goiz baten lora ain ederaí begira egoan... Iñontzez beterik egozan lorak eta eguzkiaren lenengo izpiak, dis - diska ebiltzen bere orietan, oríok ari-bitxiz beterik bai'lirean.

Pozez eta eskar onez beterik, eguzki, iñontz

eta loren Egileaganantz yaso zituan orduan neskatotxoak bere begiak.

Gurasoak, euren alabatxoaren ontasuna arin oartu eben eta ixilka ondoan esan eutsen alkañi: Eder eta zoragarí lora ofen antzera, bera be erúgetasun lili bat ez ete da?

Baña urtea amaitu baño len, Koldobike il egin zan, eta lilia bañiro loratu zanean, bere ama naigabetuak, alaba gogoratuta, negarari emon eutson.

Orduan aitak onelan esan eutson amari:—Lili eder au oraindiño baratzeko ertz baten landaraxo zalarik, aldatzeko atara nebanean, gure Koldobike'k atsekabe andia artu eban, tamala zala esanaz. Baña gero, lili lur obero aldatua, baratzaren apaingarí biurtu zanean, Koldobike pozez bete zan, eta aldatu nebalako eskerak egin eustazan. Ama samur orek ba, ez egizu negarík egin, negar egin bearean poztu zaitez. Luřetik aldatua izan ařen, zeure alabatxoak ez ete dau dis-dis egiten zeruan gotzonen artean?

Ludi galdutik uruti,
gure lili garbia,
Yaunak berak aldatu dau
donokien erdira,
baratz eder ta betiko
edertasun tokira.



A R B I A

N EKEZARI txiro batek, gustiak arituta itxiten zituan arbi (nabo) aundi bat artu eban bere baratzean.

Eta bere artean onelan egin eban:

Neure ugazaba konde yaunari eroan bear dautsot, arbi auxe, baratzak arduraz landutea atsegin izaten yako-ta.

Eroan eutson ba, kondea bizi zan gastelura, eta arek alango lankortasuna goraldtu eta eskerak egiñaz, zintzotasun a saritzeko, iru ontzurē emon eutsozan.

Baseri atako beste lugin, aberats aña zikoitza zan batek, au yakin ebanean, berakautan esan eban: Neuk be izko eder-eder bat daukot, eta bereala gasteluko yaubeari eroan bear dautsot... Arbi ezerez bategaitik iru ontzako emon ezkerro,

nirea lango izko bategaitik zenbat emongo ete yozak!...

Bereala izkoa lepotik lotu, eta gasteluko jaunari eroan eutson, bere eskintza ontzat artze-ko esanaz. Baña kondea zuña zan, eta zikoitza zetan etoñen igari eban, eta ez eutson artu gura izan.


Baña lugiñak artzeko ta artzeko ekin eutson, eta eskintza andia ezpazan be, abegi ona egi-teko.

Kondeak sentzun andia eukon eta onelan esan eutson lugiñari:

Tira ba, zure eskintza artu eragiteko ainbeste alegintzen zaran ezkerro, neuk be gitxiago ez dot gura izan. Alan ba, izko oñek balio daben baño bi edo iru bidar geyago kosta yatan gauza bat emongo dautzut.

Eta geyagoko barik, berak ekian arbi edeña eskiñi eutson. Lugiña gustiz lotsatuta gelditu zan.

Biotz zintzoak beti artzen dau
egiñen onen saria,
Besteren onaz ez iñartzirik,
nai ezpogu lotsaria.



AZA AUNDI BAT

YON eta Andoni langileak, baseñi batetik zear yoyazala, baratz baten ondotik igaro ziran.

—Ene!—esan eban Yon'ek—orek dozak aza tzañak! Neure bizian andiagorik etxoat ikusi!

—¡Ba!—erantzun eban Andoni'k arokeriz—orek zer ikusi aundirik etxeukiek. Nik ibilaldi baten ikusi ñoan bat; an bean ikusten dokan txaunburuaren etxea baño andiagoa.

Yon galdaragiña zan, eta bereala erantzun eutson:


—Oraitik gomutetan nok galdara bat egin giñoala, txaunburu-etxe alboan yagoan eleizea baño andiagoa.

—Baña Yaungoikoaren — erantzun eutson Andoni'k—ainbesteko galdara tzaña zertarako zoon?

Yon'ek auxe yardetsi eutson:—Euk ikusi eintun azea egosteko.

Andoni, au entzunik, lotsaz goñi-goñi egin zan. Eta onela esan eutson Jon'i:—Ik guzurik esateko oiturarik ez daukok, eta neuk esan dautan guzuragaitik lotsatu eragitearen esan dautak ori lelo-lelorik. Ondo yagok eta pozez emoten daustat *tantua*...

Esakun zañak diñon legez,
«Guzur zaleri andiago»
Guzur-ereile danak sañi yok
txindi bardiña beretzako.



MATS - AYENA

BARATZAIN batek bere etxe auñean mats-ayen bat aldatu eban, eta matsak, azi zanean, bere adarostoa kaz etxe-auñe gustia estaltzeraño eldu zan eta ostopean mats-mordo gozoak eskutatzen zituan.

Auzoko batek mats-landara edeñari bekaitzez begirutzen eutson-eta, gau baten, adarík indar-tsuenak ebagi egin eutsozan.

Ufengo egunean, ugazabak bere mats edera alan mostuta ikusi ebanean, atsekabe andia artu eban; aldi atan ez ekien ondiño matsak igali ugariagoak emoteko, adarak mostutea onuratsua ebanik.

—Gogoz negar egingo neuke, (iñoan gaxoak). Neure matsak be negar egiten dau, bere adarak ebagi dautsiezala-ta!

Baña gauza ariagaría! Urte atan mats arek uzta ugariagoa ta mordo ederagoak emon zitan: ordurarte emon ebazanetan ederanak.

Etsayak safi gure kaltean
bekaitzez egin oi dauna,
Yaunak alantxe nai dabelako,
gutzat onuratsuena.



EGUZKIA

BIN emakume maratz bat, bere seme ta alabeagaz baratzean lan eginda, ilunabar-ean etxera biurtu zan. Etxean sartu ziranean, mai gañean argi bat ixioiuta ikusirik, aritu ziran.

Yorka'k izuturik esan eban:

—Etxean iñor ez ta au zelan izan leiteke? Argi au nok ixiotu ete dau?

—Nor izango zan ba, aita izan ezik, erantzun eutson Margarite'k. Guk baratzean ekin dautso-gun artean uritik eto'riko zan.

Berealaxe etxea arakatzen asi ziran, eta pozez beterik alboko gela baten aurkitu eben.

Ufengo goizean zelayan bedar ebateari ekin eutsoen. Eguzkiak bere edertasun gustias dis

-diska agertzen zituan. Yorcka ta Margarite bere edertasunari begira, pozez beterik egozan.

Umeak—esan eutsen aítak—atzo geure gelako argia neuk ixiotu nebala lan andi barik igarí zenduen. Gaur argi ederóri goyetan dis-diska ikusirik, nok ixiotu daben igaríko ete zeunskioe?

Margarite'k erantzun eban: Ori ziur - ziur Yaungoiko ona da. Argirik txikeréna be berez ezin leíteke ixiotu. Beraz eguzkia ixiotu dabena be norbait bai da.

Egia da izan be—erantzun eutson Yorcka'k pozez.—Eguzkia, ilargia ta izarak, bedar lora ta zugatzak, itz baten inguruan dakusgun gustia, bere eskuetatik urtena da.

Goyan dis-dis dagien eguzkia,
Yainko altsuaren ezaupidea.



M A S T E G I A

MASTEGIGIÑAK, il zorian egoala, bere semeai esan eutsen:—Ene seme maiteok: neure etxetxo au eta inguratzen dabene mastegia bakarik yarauntzi edo erentzizat itxiten dautzuet; baña mastegian ondasun andiak aurkituko dozuez. Luía ondo aztindu ta ondasuntegi ori idoroko dozue.


Aita il zanean, bere semeak su ta gar luía aztertzen asi ziran, baña uré ta zidaíaren azter-enik be ez eben idoro.

Udagoyena eldu zanean baña, ainbeste ne-
tez landu eben mastegiak, askozaz mats mordo

geyago emon zituan, eta beste urteetan lako bi irabazi eben.

Orduan igari eben aitak aitaturako mastegiko ondasuntegiak zer esan gura eban, eta mastegiko ateburuan itz-neurtu oneik ipiñi zituezan:

Luñik latziñen baru be,
uñezko mia dago,
baña lanez izan ezik
ezin leike idoro.



PERETXIKOAK

BEin baten ama onak bere alabatxo Katariñe, aitari asko atsegin izaten yakozalata, peretxikotan mendira bialdu eban.

Biurtu zanean neskatoak esan eutson:—Ene ama! nik aurkitu dodaz gaur peretxikoen edeñak! Begira!—esan eutson otzara zabalduaz.

Gustiak goñiak dira ta bitxiz apainduta dagozala dirudi. Lengo egunean ekañi zenduzan antzeko txiki ta urdiñak be aurkitu dodaz, baña, erkin etsita, bertan itxi dadaz.

—Zu zara kaskariña! erantzun eutson amak. Oñek, begirako ain edeñak dirudien peretxi-


kook, oso edentsuak, (benenotsuak) dira, **bariz** etxura bakoizat ezetsi dozuzan urdiñak, **egin**-egiñean be onenak dira.

Ludi onetan gauza askogaz bardin gertatzen da. Onoimen (birtute) apal eta ixil asko dira **zar**-rata gitxi egiten dabenak. Eta oitura txar **disdi**-tsuak bai'dira, leloak aritzeko gai diranak.

Txañen guzuzeko azalak érez, ene **alaba**, atzipetu geinkez, eta obenera eroan be.

Ba ene alaba,

Azal disditsuz oitura txañak
menperatzen dau gizona,
edenez bete gogoa eta
galdu erain be zoruna.



BEDAR BIKAÑA

BIRGITE ta Paule baseñitar mirabeak, otzarakada bana arnari buruan zituezala yoyazan.

Birgite'k etenbako ezpa ta mormoxetan ziar-duan; Paule, ostera, bide gustian bañez eta yolaserako gogoaz yoyan.

Eta Birgite'k esan eutson:—Olan bañe egiteko gogoaz zelan daukozu? Zure otzarakadea nirea baño ariñagoa ez da, eta ni baño indartsuago be etzara ba.

Paule'k erantzun eutson:—A, nik neure otza-

rakadan, zama gustia arintzen daustan bedaía ipiñi dot eta oregaitik igari barik daroat.

—Oraitiok, erantzun eutson Birgite'k—bedar orek gustiz bikañak izan bear dau. Neuk be daroan zama edo otzarakada au arintzeko, bedar ori eukitearen, ez dakit zer emongo neuken be...

Paule'k erantzun eutson:—Zama (karga) gustiak arindu ta neke gustiak gozatuteko indaía daukon bedaíaren izena auxe da: *Eroapena*.

Zama aztunena
arindukozu,
Eroapenaz
artzen ba'dozu.



EPEREN ABIA

MUTIKO bik mendi basteréan egoan garitza baten, eper abi bat idoro eben, eta arautzen gain egoan amea arapatzea lortu be bai.

—Ik arautzak artu egizak, iñotson nausienak besteari, nik epeña gordeko yoat. Arautzak epeñak beste balio yabek.


Eta gasteenak erantzun eutson:—Ori egia ba'dok, eutsoz arautsok eta ekak eper ori.

Orduan eztabaidan asi ziran, eta azkenez al-

kañi uleetatik tiraka be bai. Buñukan ziarduen artean, nausienari epeñak eskuetatik iges egin eutson, eta gasteenak, uste barik añautzak zapaldu zituan. Eta ezer barik gelditu zirala ikusirik, baketu ta alkañi esan eutsen:

Zuzen yegoan, bai, gure aita, ekin da ekin egi au esaten yauskuanean:

Gogaldu sañi aldiak beti irakatsi daun egia:
«Galdu dan oño edeña baño añautza bat dok obea».



LUGINTZAN

NIKOLA, txiro ta alpeña zan. Bere etxe ingurua sasi-arantza ta sastraka baño ez egoan basotxoan zan.

Egun bero-bero baten, uztaldia zan ondiño-ta, Nikola nagikeriz urétx baten kerispean etxunda aurkitzen zan.

Une atan bere ondotik igaro zan lugin bat, burdi bete gari-asago eroyala.

Nikola bekaitzez burdiari begira egoan, eta ostaz-ostaz lugiñaren agurari erantzun eutson. Lugiñak, geldituta, Nikola'ri esan eutson:

Eure luálde oñeri, laíatuten itxi beáean, eure gorputz alper oñek zapaltzen yokan añako lur atala egun bakoitzean layatuko ba'endu, urte bakoitzean nik burdi onetan yaroadan añã gari artuko eunke.

Nikola'k onu edo konseju au aintzat artu eban, eta sasi-arantza ta bedar txañak kenduta lanari gogoz ekin eutson. Eta alantxe solo eder-aren yaube egin zan, eta txurikorik eralgi barik, bera ta sendia alikatzeko lain artuten eban.

Ludi gustiak lan egiten dau,
udabañiak lorak emon;
udagoyenak lorta ugari
eskintzen dituz, beti, nai non.



EGUZKIA TA EURIA

EKAITZ aldi ta eurite baten, mufiko batzuk euren artean mormoxetan ziarduen:

—Ene Yaungoikoa! Zer dala - ta eguzkiak beti argi ez ete dau egiten?


Aldi gitxi haru bai'zirudian, Yaungoikoak euren eskariak entzun zituala: Ila askotan, ortzean (zeruan) laño txikienik ez zan agertu ba.

Eta leorte ain luzeak, solo, zelai ta baratze-tan kalte andiak egin zituan. Baratzean, landara, lorak igertzen ziran, eta gurari biziz itxaroten eben liñoa be, ontza batzuk baño etzan asi.

**Eta amak esan eutsen:—Ointxe igañiko do-
zue, euria, eguzkia baño beaizan gitxiagokoa
ez dala. Yaungoikoaren yakiturizko erabagi
onetatik, ikaskixun auxe beti atera egizue: Beti
alaitasun eta atsegiñez bizitea ez da egoki, baita
eroapen ta yakiturgia lortuteko, neke ta atseka-
beak igarotea egoki dala.**

**Gogaldu daigun beti, Yaun-Yakiturgia,
pozez arturik beti bere guraria;
eguraldi ona lez ekaitz ta euria;
pozez gauza alaya, naiz atsekabea.**





BUSTIÑARÍA


GIZON aberats batek, eztabaida gogoña izan eban bein nekazari bategaz, eta aberatsak asare biziz, bustiñari edo ladrilu bat artu ta

yaurti eutson. Nekezariak buztinaria artu ta bere etxera eroan eban, bere artean esanaz: Baileiteke egunen bat eltzea, ari au neuk berari yaurti al izango dautsodana, berak ezer egin al izango daustan bildur barik.

Aberatsa, bere afokeri, alperkeri ta eralgi-keriz, lur yota, ezer barik gelditu zan: Egun baten soñeko arlotez yantzita, nekezariaren etxetxoaren aurretik igaro zan. Une atan nekezariak igaroten ikusirik, gordeta eukon beñolako buztinaria artu ta yaurtiteko asmoz ureratu yakon, baña bere bapateko asarea itota, berekautan esan eban:

Ointxe gogoratzen naz, txarto egiñari txarto egiñaz inoz ez yakola erantzun bear. Neure etsaya aberats eta altsu izan dan artean, beratzaz aspertu edo bengatzeko euki dodan zirikaldiari, eutsi egin bear izan dautsodala uste izan dot, eta kistar bati ez yagokon gogorkeria izango litzake, oin zoritxarpean dagoala, neure asper gogoa asetutea». Itzok esanez, aña yaurtin eta orde, ogi zati andi bat emon eutson, goseak eskean ipiñi eban lur yotako aberatsari.

Txarto egiña onaz ordaindu
da kistar onen legea;
etsaya bere maite bear da,
maite dogun lez anaya.



TXORIAK

GAUZA zoragañienetakoa, ziñez, aran erdian dagon eritxoa, inguru gustian arnari zugatzak dauzala. Gauza atsegingañienetakoa, usain gozoz aizea betetan daben loraz beterik, zugatz oneik udabañian ikustea.

Eta gustiz ikusgaría, zugatz adaræk, udagoyenez, madari, sagar eta okaranez zamauta ikustea.

Txori askok euren enbor eta adarëtan, inguruko pagoetan lez, abiak egiten zituezan, txoó-
-txio gozoz aizea betetzen ebelarik.


Gurasoak saritan euren semeai esan oi eutsen, berez ikasitako abesti areitan arëta ipinteko, eta oartu be bai.

—Izaki txikioi kalterik txikienik ez egiteko arduraz ibili zaitez; euren abiei ez ikuturik be egin; araneko liliak yantzi, eta txoritxoei yanaria eskintzen dautsen Yauna atsekabetu gura ezpadozue. Gure maitasunez bakañik ba, Yaungoikoak emon dautsez lorai euren margo edeñak eta usain gozatsuak, urétxindoñai abots garbi atsegingaria.

Alan da gusti be, mutiko sakar batzuk abiak artu ta apurtzen ibilten ziran. Txoriak izutu ta apurka-apurka aranetik iges egin eben, eta arézkero baratz eta bedartzetan abestirik ez zan entzuten, eta éritxoá ixiltsu ta itun biurtu zan.

Mutikoen gaiztakeriak ori baño be ondoren kaltegaríagoak ekañi zituan. Len txoritxoak yaten zituezan, eta ortuarien zat ain kaltegarí diran arak, izugaríro ugaritu ziran; eta osto ta lorak iruntsi egiten zituezan. Zugatzak, laster, negu goñian lez, soil gelditu ziran; eta len arnari edo fruta ugari yaten eben mutiko gaiztoak, sagar ale bat be yan barik egon bear izaten eben.

Txori abes samurak
ene ume maitea,
ta arnari gozatsuak
Yaunaren emaitzak lez
ba-dozuz maite:
txorien abitik
uríndu zaite.



A R A U T Z A K

LUGIN bat bere seme ikasle zanagaz mayan yari zan. Iru arautza yateko ekañi eutsezela ikusirik, aitak esan eban:

—Au gitxi dok; lau ekañi bear yoezan, bakoitzak bi yan al izateko be.

Orduan semeak esan eutson:—Neuk agertuko dautzut azpil oretan dagozan arautzak bost dirala.

Pozik entzungo daustat ba,—erantzun eutson aítak.

Semea ben-ben yaíri ta yakitun aizeaz asi zan:—Iru aítutza dagozan tokian bi be bai dagoz. Ezteritxo?

—Ederto—erantzun eutson aítak:—ori argi yagok.

—Alan ba, aítutza bi ta iru aítutza dagoz azpil edo plater onetan.

—Bai; ondo yagok—esan eban aítak—eta auíera.

—Orain ba, begitu ondo—yaíritu eban semeak.—Azpil onetan aítutza bi ta iru egon ezkeru, eta iru ta bi bost izan, argi dago azpil órétako aítutzak bost dirala.

—Ederto!—esan eban aítak—eskua azpilera luzetuaz. Nik ba, yango yoadaz iru aítutzak eta beste biak eurretzat.

Ona da batsuetan
oldospen zolia,
baña yatorduetan
aítutza obea.



AGO - BELARIAK

I

ANDIKI sendiko gaste ta aro antusteak, bera baño zařago ziran batsukaz etenbako bariketan ziarduan.

Aretatik zařenak au oarturik, esan eutson:

—Ene seme; Egileak belari bi, baña ago ba-
kařa emon eutzun; eta onek adirazten dau, itz

gitxiago egin eta entzun geyago egin bear do-
zula.


Itz asko egin eta
entzuteztabena,
gogaikaña bai-da,
ez baña ikastuna.

II

Beste gaste aberats andiki batek otsein bat
etxetik yaurti egin eban, arazo baten zintsoa ez
zala izan uste izan ebalako; eta bere burua zuri-
tzeko astirik be ez eutson emon. Baña gauzak,
ondo aztertuta, otseña erubako izan zala agertu
zan. Orduan bere aitak esan eutson gazteari:

—Yaungoikoak, belari bi emon dautzuz; ba-
tagaz salatariari entzun bear dautsozu; baña
bestegaz zalatua izan danari be bai.

Zurtasunak eskatzen dau
bieri entzutea,
iñoz be emon ez daizun
epai kaltegaría.



ANOTS EDO ARI BIZIA

YORKA mutikotxoak, ondiño ez zekian ari bizia zer zan. Zelai baten zegoala bein garasika asi zan:—¡A! ¡A!

Eta bereala aureko mendiak bardin erantzuten eutsola oartu eban.

Norbait bertan ostenduta egoalakoan ariturik itandu eban:—Nor az i?

Eta lengo abotsak bereala erantzun eutson: ¿Nor az i?

Yorka'k orduan erantzun eutson:—I lelo bat az.

Eta itz bardiñak entzun zituan. Orduan Yorka asafeturik agora yatorkozan irain gustiak yaurtiten asi zan, berak ostenduta egoala uste eban-aren aurka. Baña anoñsak guztiak bardin biurtzen eutsozan.


Azkenez oyanean bañura sartzea erabagi eban, an eskutauta egoala uste ebana idoro ta zigortzeko, baña ez eban iñor aurkitu.

Bizkor etxera biurtu zan, eta yazotakoa amari edestu eutson, mutil zantzalen batek eskutauta iraindu ebala esanaz. Bere amak erantzun eutson:

—Oker ago mutil; ik euk esandako itzen otsa baño ez dok entzun. Ik oyanera begira itz samurá esan ba-endun, itz samurák erantzungo euskan.

Bizitzan be bardin gertatzen dok. Besteak geugaz dauken artu-emonetan, geu eurekaz garezan lakoak saritan izaten dozak. Geu, begirakun bako, gogor eta lotsabako gure lagun-urkoagaz ba-goazak, eurakandik erantzun oberik ez yoguk itxaron bear.

Oyanen erantzuna
geuk esaten doguna.



K O R D E L A


NIKOLA ta Godopredo gaztetxoak bidez yoyazala, kordel zar bat idoro eben. Berea-laxe, batak berea zala, besteak be bai, eztabaida beroan asi ziran, euren garasiak inguruko zelai ta mendietan be entzuten ziralarik.

Godopredo'k alde batetik kordela oratuta eukon eta Nikola'k bestetik, eta biak indarka alkari kentzeko. Olanxe alditxoia igaro eben, eta azkenean kordela apurtuta bian lokatz artera yausi ziran.

Une atan bertatik igaro zan gizon batek esan eutsen: Estabaida-zaleai orixe gertatzen yakek.

Uskeri utsagaitik gañasi ta eztabaida zaratatsue-
tan asten dozak, eta zer irabazten yabek? Ezer
bez: saritan zuek lokatzez lez, lotsariz beterik
geratzea baño.

Bakez bizi gaitzean
eztabaida barik,
eztabaidak ez dakar
iñoz be gauza onik.



SASPI SARDAYAK

AITA batek saspi seme alkar aitu ezin eben-
ak eukozan. Euren alkar artu eziña aun-
dia zalako, saritan eztabaidak lana be galerazo
egiten eutsen.

Egunerik-egunera asareak ugarituaz yoya-
zalako, auzokide zikoitz batzuk, sendi atako
asareetatik onura atara gura eben, eta aitari,
semeak ondoregabebeteko ta beste batzuei onda-
sunak itxiteko esaten eutsen.

Egun baten zar agurgariak bere auñera saspi
semeai deitu eutsen. Saspi sardai (palu) asagotu
edo txoriatuak erakutsiaz esan eutsen:

—Auxe sardai txorta au, zati bi egiten dabeneri, bereala eun ogerleko emongo yautsadaz.

Banan banan euren indařak neurtu ebezan, baña alpeřik nekatu ondoren, esan eben:—Ezin leike apurtu.

—Alan da be, esan eban aitak, gauza ęreza-gorik etxagok. Ikusi eikezue.


Itzok esanaz, txortea azkatu eban eta, bana-ka, gustiak apurtu zituan.

—¡A! olan gauza ęraza da—esan eben gustiak batera.—Ume baten eskuak be naiko dira ořetarako!

Orduan aitak yardetsi eutsen:

—Ara emen semeok; sardayok zuen irudi dokak. Alkartuta iraungo dozuen artean, sardayok asagotuta egon diran lez, sendorik iraungo dozue; eta iřok ez zaitue besauko. Alkartu bear zaituen lokarřa apurizen ba-dok, ementxe zeuen ořetan zatituta agertzen dokazan sardayon antzekoak izango zare.

Etxe, uria ta aberřia,
argaltzen dira banantzez;
baña alkarturik dagozanean
ezin leiz besau indařez.



AZA-O'RIAK

AMA gustiz dulabre batek, bere baratzen gustitariko ortuariak zaintzen zituan. Egun baten bere alabeari esan eutson:

—Koldobike; ikusten dozan, oñi onen lepaldean agiri dozanan mota zurizke oñeik? Oñetarik bakoitza, añautzatxo bat don. Gerorantz ortixek sortzen dozan, ik ainbeste bider añiturik ikusi dozanan margo ederdun asoin edo añak. Eta añok gero, an bean jira-biraka ikusten dozanan mitxeleta zuri biurtzen dozan, ainbeste kalte egiten dabelarik.

Bazkal ostean arduratu adi ba, guztiak aztertu, eta aurkitzen dozanan arautza guztiak zapaltzeko. Orixe egiten ba-don, gure azak beti orlegi ta mardul iraungo yone.

Koldobike'k oretarako astia eukiko ebala us-te izanik, amak emondako aginduz aztu egin zan.

Bere ama gexotu zan, eta aste batzuetan baratzera ezin izan zan yatsi. Baña osatu zanean, bere alabea eskutik ebala, azak ipiñita egozan tokira eroan eban.

¡A zan ikuskizuna! Azok, arak gustiz mauka-iruntsiak aurkitu zituezan; aza-orien zanak eta zortzanak baño ez ebezan idoro!

Koldobike, bere nagikeriaren ondorenak ziralata lotsaturik, negar da negar asi zan.

Orduan amak esan eutson:

—Orexek erakutsikouna, gaur egin al donana biarko ez itxiten. Baña beste ikaskizun ederago bat be, birindutako ori oreitan idatzirik yagola yirudin: Auxe don:

Ekandu txara zapaldu daigun
sustartu baño lenago;
atzamañeko gatxa ba laster
zabaltzen don besoraño.



INTXAURÁ

BASERRI-ETXE baten ondoan egoan intxaur
-zugatz andi baten aspian mutiko bik
intxaur ale bat aurkitu eben.

—Neurea dok—esan eban lñaki'k—neuk iku-
si yuat lenengo!

—Ez! neurea dok—erantzun eutson Andoni'k
—neuk artu yoat-eta.


Eta bereala eztabaida gogoñean asi ziran.
Une atan bertatik igaro zan mutil zañago ta in-
dartsuago batek esan eutsen:

—Neuk bakeak egingo yoadaz. Eta bien erdian yañi, intxaúra erdibitu ta biekana biurtuta esan eutsen:

—Azal erdi au intxaúra lenen ikusi ebanena dok. Beste erdi au, artu ebanena. Bañuko ma-miña bañiz neuretzat, neure erabagiaren ordaintzat.

Eta bañez esan eutsen: Auxe dok auzi gus-tien azkena.

Yakin nai bo-zu dana galtzeko
egokien dan bidea,
ekizu dala, ezpairik gabe,
lagun arteko auzia.



KEA TA DIRU-TINTIÑA

BEin bidezti bat ostatu batera eldu zan, ostalaria zerbait prijitzen ebilen bitartean.

Ostalariak onelan itandu eutson:

—Onango zati bat zeuretzat ebatea gura dozu?

—Ez, erantzun eutson bideztiak, ke-usañak be naiko bete nau-ta.

—Orduan ostalariak esan eutson: keagaitik sei eREAL ordaindu bear daustazuz.

Bideztiak eskari au yolasean artu eban eta ixekaz buruari erain eutson. Baña ostalariak, epaikariagana eroan eban.

Epaikariak, eskatzen ebana ordaintzeko agindu eutson, eta gogo txarez ba'zan be, bideztiak

dirua mai gañera bota ebala ikusiaz, epaikariak ostalariari esan eutson:

—Ostalari yauna: diru onen tintiña entzun dozu?... Edeía, e?

—Edeía—erantzun eban ostalariak, artzeko eskua luzetuaz.

Baña epaikariak onela esan eutson:

—E...! geldi or!...

Eta erabagia onelan emon eban:

—Bidezti au priijigayaren usañagaz bakañik asetuzan ezkeru, bidezko ta zuzena da, zeu be diruaren tintiñagaz bakañik pozik gelditzea...

Gizonaren biotza
idazti agiria,
auziak epaitzeko
epaikari garbia.



OÑETAKOAK

AUNTZAK zaintzen irabazten ebanagaz, Konrado gizajoari ez yakon eltzen oñetako batzuk erosteko.

Auxe zala-ta oñetatik asko yasan bear izan eban. Udagoyena azkenetan egoan, eta euri ta edurtza ugariak yausten ziran.


Egun baten, oyanetik agertu yakon, lapurtzat biriteko aldiz zigortua izan zan gizon bat eta onelan esan eutson:

—Nire bizibidea irea baño irabazteko obea dok. Neure menpean yarten ba'az, oñetako bañi batzuk emongo daustadaz. Oñetako onakaz otzik ez dok izango, eta ortozik lokatz artetik ibili bearik be ez.

Auntz-zaintzaleak baña onelan erantzun eutsen:

—Ez; gurago yoat zintzoa izan eta ortozik ibili, gaiztakeri bidez aberastu baño. Askoz obedok lokatzez oñak zikintzea, esku ta arimeagaiztakeriagaz baño.

**Txiro ta zintzoa izan
obe da ontasunez
aberatsa izan baño
gaiztakeri bidez.**



MORROI ETOYA

MORROI asko zituan ostalari batek, ardantegirik ardaoa ostuten eutsoela oartu eban, eta berekautan onelan egin eban:

—Etxe onetan norbaitek euki bear dau niri galdu yatan giltza; eta nor dan yakin bear dot.

Oartu eban, ez zala gabaz eskaratzean ego-

ten, baster baten egoan luézko ontzi andi bat, eta uréngo goizean bañiro bere tokian agertzen zala.

Eta berekautan onelan esan eban:

—Ondo, ondo dago! Ontzi orek agertuko daust niri, lapuía nor dan.

Zelatan yañi zan, baña lapuía maltzur andia zan eta, ostalariak artu zituan bide gustiak alpeřeakoak izan ziran. Ostalariak baña usterik ez eban galdu, eta berekautan onelan egin eban:

—Dana dala; nik lapuía atrapauko dot.

Ontziari azpitik zulo txiki bat egin eutson eta bañiro bere tokian itxi eban.


Uréngo goizean yaiki zanean, zulotik urten dako ardaoak ardantegitik moñoi baten gelaraño egindako leño bat ikusi eban luéan.

Ostalariak, oren zergaitia moñoyari eskatu eutson, eta moñoa autortu beañean aurkitu zan.

Ardantegiko giltzea ostu ta ontzi atan ardantegitik ardaoa atara, eta balio eban erdian auzoko bateri saltzen ei-eutson.

Epaikariak lapuía etxetik yaurti eban eta bere lapurkideagaz antxe zigortu eban. Moñoi lapuía, etoi (infiel) izan zanez, ordurarte izan eban baizen bizibide onik egundo ez eban iñun aurkitu. Árezkero, sañitan esaten eban:

Gaizki egiña—laster azaldu,
naiz ta gaizkiñak—ondo estaldu.



ILTAMUAN EGOAN BATEN IRU ESKARIAK

LATERRI-lanetan, éregearen (bakaldunaren) otseintzan, orain gizaldi asko dala zintzo bizi izan zan, yatorí-ospetsuko gizon bat iltzer gexorik egoan. Eriaren aldez baño, bakaldunaren onerako ondasun eta aintza bila geyago arduratu zana zan bear ba'da, ta Bakaldunak

ikertu eban eta berak nai eban emaitza eskatzeko esan eutson.

—Nire ba'ua, kontzientzia, baketu egidazu, —esan eutson—oin arte lu'era baka'rik bizi izan naz-ta.

—Ori ezin egin neike, —erantzun eutson bakaldunak.

—Tira ba, —yardetsi eutson gexoak—nire bizia ordu betean luzetu egidazu.

—Ori be ezin neikezu egin, —erantzun eutson bakaldunak; —ezta begiak itxi - idigi baten be.

Orduan intziri bat eginda onelan esan eban gexoak:

—Neure gorputzeko o'ñazea beintzat arindu egidazu.

—Ori be nire eskuetan ez dago, —yardetsi eban bakaldunak.

—A!—esan eban intziriz gexoak orduan— Oba neban zu bezain zintzoro Yaungoikoa otseindu ba'neu. Oin donokian aizkide bat izango neban: aizkide baka'ra, ezauga'ri ta mezuak, emaitz ede'rak lez emon bea'ean, obenak parkatu, bizia luzetu, eta betiko bizi'za emon leuskidana.

Yauna, Nagosi lez-otseinduta baka'rik esan leike ez dala-bizi izan alpe'rik.



ILARTITZ BAKANA

URI andi bateko obitegi baten ondofik igarotean, bidezti batek, ari landuzko ilobi baten idazkun bat irakurri eban. Atxurdiñezko irudi baten onetan, itz gomutagañok idatzita ikusi zituan: «Ilobi onetan gorpuzkiñak dituan gizona, larogei ta amar urtedun il zan, eta iru urtean bakañik bizi izan zan».

Erbestetañak, itzok zer esan gura eben ez eban ulertzen eta zulogileari deitu, eta onek azaldu eutson idazkunak zer esan gura eban.

—Ilobi onetan dagon gizona—esan eban—txikitatik eta zartu arte luñerako bakañik bizi izan zan, eta ondasun igeskoñak, atsegiñak eta andi-zurenak bakañik bilatu zituan; baña eriotzea baño iru urte lenago, gogoz zearo aldatu ta bere

buruatzaz arduratzen asi zan. Yaungoikoa eza-
gutzen ikasi, Berari egunoro otoyak zuzendu,
eta Yesu-Kisto'ren irakatsi-arauz bizi: orixe izan
zan aren iru azken-urteko biziarea.


Irabazi zituan ondasunakaz, beartsuei on as-
ko egin eutsen, besteak zoriontsu egitea baño
poz andiagorik ez eban izan, luferko andizuren
utsaz geyago ez zan arduratu, Yaungoikoa'ren
guraria betetea baño beste amesik ez eban.

Eriotzako orduan onelan esan eban:

—Igaro neban bizitza, ez zan bizitzea be;
Yaungoikoa'rentzat zearo ilda nengoan, Bera
gizonaren egizko zorion bakaña izan aren. Baña
nire eretxiak aldatu ziran ezkerero, benetan ondo
biziten asi nintzan. Alan ba, iru urte oneitan
bakañik bizi izan naz Yaungoikoa'rentzat eta
onerako, pozik garbi eta onenak gozartuaz.

Ilarian len aitaturko itz gomutagariak bakañik
idazteko agindu eban, baten batzuk irakurita
obeto oldostutera biurtu leikezala-ta.

Ludirako bakañik
bizi izan danak,
ezin leiz irabazi
zeruko zorunak.



BASERITAR MALTZURĀ TA BERE ZALDIA

GAU baten baseritar bateri kortan eukon zaldirik onena ostu eutsoen eta, beste bat erosteko asmoaz, andik amabost ordura egoan eri bateko perira yoan zan. Eta arituta gelditu zan salgei egozanen artean bere zaldia

ikusi ebanean. Bereala lokañitik artuta onelan esan eban:

—Abera au neurea da; oin iru egun ostu eustien.

Zaldia saltzeko eroan eban gizonak, gizabide andiz onelan erantzun eutson baseñitañari:

—Ene aizkide: oker zagoz. Urte bete onetan neugaz daukot abera au. Ba'leiteke zuri ostu dautzuenaren antzekoa izatea; baña au ondo neurea da.

Baseñitañak bereala zaldiari begiak eskuakaz estaldu ta onelan esan eban:

—Tira ba, zuk urte bete onetan zeugaz daukozula diñozun ezkeru, zein begitatik itsu dan esan egidazu eskañez.

Saltzaleak, izan be, zaldi a ostu egin eban eta, ondiño ondo astertu barik eukon-da, itaun aregaz izututa gelditu zan.

Baña zerbait erantzun bear eta:

—Eskeñeko begitik!...—erantzun eban.

—Okera zagoz, erantzun eutson baseñitañak, abera au eskeñeko begitik itsututa ez dago.

—A, ta egia da izan be; okera egon nazi —erantzun eban lapurak.—Eskumako begia da galduta daukona.

Orduan baseñitañak, zaldiaren burutik eskuak aldentuta, onelan erantzun eban:

—Argi dago lapur eta guzurti bat zareana! Emen zagozien gustiok ikusi zeinkie zaldi onek

begi galdurik ez dabela. Nik maltzurkeriz egin dot ori, lapur eta agirian ipiñi, eta gizon au nor dan azaltzeko.

Perian egoan gizoste andiak, lapur eta baseñitararen inguruan yañi, danak bañeari emon eta txaloka:—¡Atrapauta ago! iñoen. ¡Atrapauta ago!

Saltzaleak ostutako zaldia baseñitarari biurtu bear izan eutson, eta gañera lapur lez gogor zigortu eben.

Maltzurkeriaz nai izaten dau
garaile izan lapurak;
baña sañitan urten oi deutse
bere kaltean guzurak.

AURKIBIDEA

Oaŕa	5
Galburuak.....	7
Lilia.....	9
Arbia.....	11
Aza aundi bat.....	13
Mats-ayena.....	15
Eguzkia	17
Mastegia	19
Pefetxikoak.....	21
Bedar bikaña.....	23
Epeŕen abia.....	25
Lugintzan.....	27
Eguzkia ta euria.....	29
Buztiñaŕia	31
Txoriak.....	33
Afautzak	35
Ago-belariak	37
Anots edo aŕi bizia.....	39
Kordela	41
Saspi sardayak.....	43
Aza-oriak	45
Intxaufa	47
Kea ta diru-tintiña.....	49
Oñetakoak.....	51
Mofoi etoya.....	53
Iltamuan egoan baten iru eskariak.....	55
Iñartitz bakana.....	57
Baseŕitar maltzufa ta bere zaldia	59

1934.—ZORNOTZA'N
JAUNGOIKO ZALE'ren Irarkolan

LAZKAOKO BENEDIT

X
82
S
ip